

EUSKARA BATUAREN HASTAPENAK

TXILLARDEGI

(Hizkuntzalaria, EHU-UPVko irakaslea)

Zalantzarik ez dago. Euskara Batuaren Oinarriak, sistematizaturik, Arantzazuko Batzarrak finkatu zituen 1968ko udazkenean, urriaren 3, 4 eta 5ean. Alde honetatik begiraturik, beraz, Batuak mende laurden bat beteko du geurtz (datorren urtean, alegia).

Bide beretik, Arantzazuko Txosten nagusia, Euskaltzaindiak hautatu zuen batzorde baten laguntzaz, Koldo Mitxelenak prestatu zuen 1968an.

Hori guztia egia da.

Baina ez da egia osoa. Bai Arantzazuko Bilera, bai Euskaltzaindiak prestatutako txostenak, Euskaltzaindiatik at mamitutako gizarte-mugimendu hazkor bati nolazpait erantzuna ematekotan moldatu ziren. Lerro hauetan erakutsiko denez.

1.-Batasunaren bilakoan, bi bultzaldi nabarmen:

Euskal estandarra prestatzeko eginahalak, oihartzun handirik gabe ahantzitako saioak alde batera utzirik, bi gailur ezagutu ditu:

a) Euskaltzaindia bera sortu zen garaikoa, 1918-1922 urteetako, nolazpait esateko;

b) Arantzazuko Bileraren garaikoa, 1962-1974 urteetakoa, gutxi gora behera.

Bi bultzaldi horien mugak finkatzerakoan, Euskaltzaindiak berak prestatu eta argitaratutako «Bibliografia» oinarritzat hartzen badugu («Euskera», 1968, 145-149), hauek dira xifrak eta zertzeladak:

a) «Euskaltzaindiaren beraren Agiri eta Erabakiak»: 18 lan.

Horiatarik.

8 lan 1918-1922
5 lan 1950 inguruan

b) *Euskara* aldizkarian agertutako lanak: 32 lan.

Horiatarik:

22 lan 1918-1922
an 1 1960 inguruan

d) *Euskeratik* at agertutako lanak: 19 lan.

Horiatarik:

6 lan 1918-1922
8 lan 1960 inguruan

Hutsune horietan ez da frankismoa bakarrik bilatu behar. «Erizkizundi Irukoitza» delakoa, adibidez, Azkueren eraginez eta zuzendaritzapean burutua, 1925 inguruan mamitu zen. Baina, frankismoan barrena, 1951ra arte itxaron behar da (Krutwig) eta 1952ra arte (Villasante), Batuaren kezka lehenengo zantzuak erreparatzeko.

Ondoko urte batzuetan barrena (Krutwig bera, Alemaniatik; eta Mirande, Paristik), ezer gutxi azaldu zen euskal gizartean Batuaren alorrean. 1962ra arte itxaron behar bide da.

1962an agertu zen «Oskillaso»ren (Basterretxea) *Kurloiak* liburua, «Euskera Osotua» eragile.

1962koa da, hain zuzen ere, Euskaltzaindian «urgazle» sei urte egon ondoren, eta Batua bideratzeko gogorik somatzen ez zela-ta, «Txillardegik» aurkeztutako demisioa. Demisio-gutuna abuztuan Bilbora (Alfontso Irigoien bitartez, orduan Zadorlaria) «urgazle» izendapenarekin batera igorririk, Lojendio Euskaltzainburuari heldu zitzaion Angelutik.

Handik egun gutxitara, eta 1962an, beraz, beste urgazle baten demisioa erakarri zuen hark: gaur euskaltzain osoa den Piarres Xarritonena.

Lojendiok ez zituen demisio hauek aintzakotzat hartu; eta, izkribuz, «Euskera Osotua»ren prozesua berehala bideratzea agindu zuen.

2.-Arantzazuko Erabakien hozidura:

Federiko Krutwig-ek, jaiotzaz getxotarra, hasieratik beretik eta agian bere germaniar kulturaren eraginez (Luther eta izkribuzko alemanieraren lotura, alegia), Joanes Leizarraga beraskoiztarraren Testamentuaren hizkera proposatu zuen Batuzat 1950az geroztik; bere ondotik garaiko euskaltzale famatu batzuk bilduz: handik urte gutxitara euskaltzainburua izango zen Aita L. Villasante gernikarra, besteak beste.

Iruñean, berekasa ari, beste bizkaitar bat: Jose Basterretxea irakaslea. Justiziaren kontra bazterturik, are ahantzirik ere, gertatu diren euskaltzale pioneroen artean, agian «Oskillaso» hau agertzen da gehien. Ingelesaren erakaskuntza praktikoan urte luzeetan trebatua, eta bizkaieraren ezagutzaile zorrotz, Jose Basterretxea «gernikar-iruñeartua»ren eragina (1911an jaioa), funtsezkoa eta profetikoa izan zen (Fonologiari buruz ondoko urteetan burututako lanetan bezala, berauek ere bidegabeki zokoratuak). Batuaren oinarriztat lapurtera hartzeko proiektua, adibidez, Krutwig eta Villasanterekin bateratsu, beroni dagokio. Batuaren eta euskalkien arteko funtzio-banaketan ere xuxen ikusi zuen: «Liburuetan, radioz guztientzat hitz egiten danean, eta hola bakharrik, erabiliko da euskera osotua, gure hizkuntzaren batasuna lortu ta erdietsi ezker be» (*Kurloiak*, 18. or., 1962).

Parisen ere, haurtzarotik deserriturik, zuberotar bikote bat ari zen Batuaren bilaketa horretan, idazle gisa eta *Igela* aldizkariaren bidez: Jon

Mirande, gailen; eta Txomin Peillen, laguntzaile. Lehenengoa bere joera faxistetan nabarmendurik, gutxietsia izan zen euskaldun anti-frankisten artean (denak ia-ia). Baina Mirande poetaren balioa kontutan ez harturik ere, Batuaren aitzindarien artean kokatu behar da zuberotarra.

Horiez gain, nolanahi ere, hiru euskaltzale multzo agertu ziren hirurogeikadaren inguruetan, Batuaren bilaketan grinatsu.

Multzo bat Bizkaian, *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan, Aita Imanol Berriatuaren ondoan, lanean ari zen; lapurteraren alde dexente «intzigidua». Multzo horretan sartu behar dira, jakina, Gabriel Aresti idazlea (orduan bere 30 urteetan), eta beronen laguna eta laguntzailea zen Xabier Kintana idazlea. Biok bilbotarrak eta euskaldun-berriak. Baita Jaxinto Fz. Setien gipuzkoarra, eta Jose Ramon Etxebarria bizkaitarra.

Beste multzo bat ari zen Gipuzkoan, batez ere Arantzazuko *Jakin* aldizkariaren inguruan. Joseba Intxausti agertzen zen taldeko eragile gisa; baina oso lan garrantzitsua egin zuten bide beretik Joan Mari Torrealdei, Joxe Azurmendi eta Fernando Mendizabalek (hiru hauetakoa lehendabizikoa ere bizkaitarra delarik). Euskara Batuaren sorreran eta sustaketan erabat garrantzitsua izan zen *Jakin* aldizkariaren lana; bai teori-mailako lanetan, bai agertutako liburuetan ere. Urrunagotik, eta ez horren garbiki bateginik, Donostiako *Zeruko Argia* astekariaren lana aipatu behar da. Eta inguramendu honetan ere Xalbador Garmendia (urte batzutan Maulen, Zuberoan, irakasle egona); eta Juan Antonio Letamendia, biok garai hartan oraino apaiz.

Eta hirugarren multzo bat, berau Iparraldean ari. Urte haietantsu (1962) sortu zen Baionan «Euskal Idazkaritza» elkarte. Eta Paristik itzuli berria zen Txillardegiren kudeaketapean antolatu zen Euskara Batua finkatzekotan egindako lehenengo Biltzarrea.

3.-Baionako proposamenak (1963-1964):

Lojendiok agindutakoaz ez sobera fidaturik, Baionako «Euskal Idazkaritza», oinarriak aztertzeko asmoa mamitzen hasi zen. Euskalki guztiak ordezkatzeko zituen Batzorde berezi bat hautatu zen, eta lan-bilerak hasi ziren Baionan, astero-astero.

Hona hemen biltzarkide haien izenak:

Jexux M. Bilbao, Morgakoa. Jean Louis Davant, Urrustoikoa. Roger Idiart, Azkaingoa. Eneko Irigarai, jatorriz Urdazubikoa. Telesforo Monzon, Bergarakoa. Jexux Solaun, Arrankudiagakoa. Txillardegi, Donostia-koa.

Hogei bat bilera egin ziren. Gure arteko akordioak («proposamenak», azpimarratu ohi genuenez) korreoz bidaltzen zitzaizkien astero Hegoaldeko 80 bat euskaltzaleri (Koldo Mitxelena barne); denen iritzia eskatuz, bilduz eta kontutan hartuz.

Hiru gai nagusi arakatu ziren:

1.-Izenaren deklinabidea, mugagabearen erabilpena azpimarratuz (garai hartan oso ahantzia);

2.-aditz laguntzailea; ez osoa, oinarritzko jokoak bakarrik;

3.-Euskal Herriko toponimoen zerrenda.

1964ko udan Biltzar Nagusi bat antolatzeko erabakia hartu zen. Eta abuztuaren 29/30 egunetan mamitu zen Baionan. Hegoaldeko euskaltzaleei (eta gure zerrendak jasotzen zituztenei bereziki) etortzeko deia bidali zitzaien (Mitxelena, Intxausti, Berriatua, Garmendia, Aresti, Rikardo Arregi, ...); batzu heltzeko aukerarik izango ez bazuten ere (frankismoan geunden). Lafitte Kalonjea hautatu genuen bileretako zuzendari; eta amaiera-ekintzara Grenet bera azaldu zen, urte askotan Baionako alkate egotekoa.

«Proposamenak» separata gisa argitara ziren, eta Ipar eta Hegoaldean ahalik eta ongienik zabaldu. Batasunaren beharra hertsia zen euskaltzale gazteen artean; eta Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu zitzaion; eta, ahalean, onespena.

Erantzun hori, ezaguna denez, lau urtez luzatu zen.

4.-Baionako bileraren ondorioak:

Jakin aldizkariak bere egin zituen erabakiak; eta 1965ko urtarrileko alean onartutako bidearen berri zehatza eman zuen (ikus *Jakin* 18; 20-28. orr.).

Zeruko Argian, eta oraino areago *Anaitasuna* aldizkarian, harrera ezin beroagoa eman zaitzaiei erabakiei.

Baina kontrako joera ere mamitzen hasi zen. Baionako Batzorde eratzailan, ETAko hiru kide, *Enbatako* bi, eta alderdikideen artean fama txarra hartzen hasia zen Telesforo baitzegoen. «Barru»ko aldetik joera berriaren alde agertzen ziren gehienak, ez zuten «prentsa» hoberik jeltokideen artean. Eta oinarrian hizkuntza-arazo zena, erabat politizatu zen.

Ospe handiko luma batzuk ere aurka mintzatu ziren (Menendez Pidal, esate baterako); eta Batuaren kontrako erantzuna, garrastu egin zen. «Kamiñazpi» idazleak biltzen zituen ongi kontrako askoren argudioak: «Batasunik ezak ez dau euskerarik galdu, ta batasunak, beste barik, ez dau indartuko ... /h/ ezelan be ez genduke erabilli behar» (*Euskera* 1968, 228). Justo Mokoroa ere bide beretik: «nik eztet bear gorri ori iñondik iñora ikusten» (ibid. 224). «Orixe»k, artean, greziarren kasoa gorai patuz, askatasun osoa eta batasunik eza txalotzen zituen.

Gutziz beste muturrean kokaturik, *Jakin* aldizkaria, Aresti, eta beste idazle batzuk, erabat azaltzen ziren hasitako prozesuaren alde.

5.-Ermuko Bilera (1968ko ekainaren 28-29-30)

Giroa berotzen hasia zen. Urte hasieran, Literatur Hizkuntzaren Batasuna lantzeko Batzordea izendatu zuen Euskaltzaindiak, Mitxelena buru ezarri.

Idazleek, orduan, presio egiteko, halako bilera handi bat biltzea erabaki zuten; han onartuko ziren erabakiak errespetatzeko deliberoa, «Zin» batez bermatuz («Ermuko Zina»).

Deserritutako idazleek ezin izan zuten parte hartu (txostena bidali bazitzaien ere) bilera hartan. Aresti, Letamendia eta Xalbador Garmendia nabarmendu ziren «batuzale»en artean. «Gerediaga» Elkartek antolatutako batzarrean, «Euskaltzaindia ez naastatzea hobe zela» erabaki zen (giroa ezagututa, oso irakurketa desberdinak ditu erabaki honek).

Jakin aldizkariak ale bikoitz berezia argitaratu zuen Ermuko gorabeherak zehazki emateko (*Jakin* 31-32, 1968). Gauzak xehekiago ezagutu nahi dituenak aski du bertara jotzea (73 orrialde).

Idatz arauak puntuka eta bototara erabaki ziren; batzarra bederatzire abaki nagusitara bilduz. Konpromezua «zin eginez» hartu zuten biltzarkideek, ofizialki horrelakorik agertzen ez bada ere. Eta hiru txostengile nagusien lanak (Laspiur, Letamendia eta Garmendia) onartu ziren.

6.-Arantzazuko Bileraren jarrera:

Euskaltzaindiak Arantzazuko Bilerara deitu zuenean, gisa denez, ongi zekien honen guztiaren berri. Mitxelena berak idatzitako Txosten nagusian bertan agertzen da hori: «1964ean Baionan egin zen biltzarren erabakiak hartzen ditut oinarritzat, punturik gehienak astiroago ukituz» (*Euskera* 1968, 205); «Baionan erabaki zenez, ezta bestelako kontsonanteen hatzean: erho, belhar, unhatu eta horien gisakoetan» (ibid. 207); «3. Izenari buruz, Baionako erabakietan hain gogoan duten bereizkuntza guk ere gorde eta indartu behar dugu» (ibid. 216). Eta abar. Ermuko bilera ere kontutan hartu zen (Lekuona-ren hitzaldian, *Euskera* 1968, 139).

Halaz ere, ondoko 24 urte hauetako historiak erakutsi duenez eta Hegoaldeari dagokionez, Euskara Batuaren oinarrien prestakuntzan ari izandako euskaltzale horietako batek ere ez du inoiz botorik («Euskaltzain oso» mailan) lortu Euskaltzaindian. Izendapenak beste merezimenduen arauera egin dira beti (Krutwig eta Villasante lehenagoko gizonak dira, oro har).

Garai haiek ezagutu ez zituzten euskaltzale gazteek, egiaren alderdi hau ere ezagutzea, bidezko iruditzen zait.